

IPUIN GEHIAGO

HAURRAK EUSKALDUNTZEN
BIDEOAREN BIDEZ

A. Lertxundi – J. Lucas
Keinu Taldea
Maskarada

361:372.3

EZ-01899

04-048

GLOTODIDAKTIKA – LANAK 13

Euskara – Zerbitzua
Glotodidaktika – Lanak

elima
katalogoa
Eibarko Hezkuntza Esparrua
943.20.27.48
20600 EIBAR

Egileak: A. Lertxundi – J. Lucas
Keinu Taldea
Maskarada


Marraskilaria: Antton Dueso
© Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Lehendakaritza Saila
Eusko Jaurlaritza

I. S. B. N. 84-7542-053-2
Legezko gordailua: 580/83
Lehenengo Argitaraldia: 1983ko Iraila
Irarkola: ITXAROPENA, S. A.
Errikobarra kalea, 2 - ZARAUTZ

A. Lertxundi – J. Lucas
Keinu Taldea
Maskarada

IPUIN GEHIAGO

**HAURRAK EUSKALDUNTZEN
BIDEOAREN BIDEZ**



AURKIBIDEA

	<u>Orrialdea</u>
AURKEZPENA	7
LEHEN ZATIA (A. Lertxundi – J. Lucas)	
Ni Kepa naiz eta nik marrazkia egin dut (1-4)	13
Ni behatza naiz eta zu, nor zara zu? (1-8)	19
Familia bat zirkoan (2-16)	25
BIGARREN ZATIA (Keinu Taldea)	
Max, Mix eta Mox mendian (1-9)	33
Mix gaixorik dago (1-10)	39
Max, Mix eta Mox ilargian (1-11)	45
Max, Mix eta Mox irla batean (1-12)	51
HIRUGARREN ZATIA (Maskarada)	
Zaunka egiten ez zekien txakurra (5-55)	61
Danborlari majikoa (7-78)	75
Jimmy Potxolo eta Zapataria (7-81, 82, 83)	87

OHARRA: Izenburuen ondoan datorren zenbaki pareak pelikula zenbatgarren zintan dagoen eta zer zenbaki duen adierazten du. Esate baterako "Familia bat zirkoan" bigarren zintan dago eta 16. pelikula da.

AURKEZPENA

Aspalditxo hasi ginen "Haurrak euskalduntzen bideoaren bidez" saileko pelikulen gidoiak eta material didaktikoak argitaratzen. Orduan ez genuen pentsatzen Glotodidaktika-lanak izeneko argitalpen sail honetako 6. zenbakia egiten zuen haren ondotik 9, 10, 11, 12 eta 13. hau ere bide horretatik joango zirenik.

Liburu andana hau lagungarri gertatuko da, dudarik gabe, bideo pelikulak ikasgelan ikusi, komentatu eta haien inguruan euskara lantzeko orduan. Baina bestela ere, berez, ez pelikulen osagarri soil bezala, aparteko material didaktiko legez baizik, izan dezakete zentzua eta balioa: giñolari eta txotxongilo egiteari buruzko azalpenak kasu, edo zenbait abestiren musika eta hitzak, eta baita ere, nola ez, liburu gehien ardatz diren gidoi idatziak. Horiei klasean zukua ateratzeko bide desberdinak erabil daitezke: antzeppen txikiak antolatu, gidoiak egokitu, galde-erantzunak prestatu, marrazkiak komentatu... Bestalde elkarrizketa, dialogoa, literatur estilo berezia da, ahozko hizkuntzatik hurbil dagoena, eta irakurtzeko modu berezia eskatzen du. Ozenki irakur liteke adibidez, ikasle bakoitzari pertsonaia bat atxekituz. Testua gehienbatean estilo zuzenez emana dagoenez, haria zeharkako bidez kontatzea edo idaztea ere beste ariketa posible bat da.

Liburu honekin amaitzen zaigu dagoeneko 1982/83 ikasturtean prestatu diren bideo pelikuletako gidoiaren harrobia. Hiru talde desberdinen lanek osatzen dute berau. Lehenengo zatian Anjel Lertxundi eta Jesus Lucasen ardurapean eginitako gidoiak ditugu; bigarren zatian Keinu Taldearenak; eta hirugarrenean Maskaradarenak.


Nolanahi ere, aurrerantzean sortzen den antzeko materiala ere argitara eman ahal izatea espero dugu. Orobat hizkuntzen didaktika eta metodologiaren inguruan sortzen diren lan eta ikerketak argitaratzeko aukera eskaini nahi diegu eginkizun horretan dabiltzanei (zabiltzatenei esan beharko agian) orrialde hauek, ez bait da beti erraza izaten bezeria mugatu batera heltzen diren izkribuak bide normaletatik argitaratzen.

EUSKARA ZERBITZUA
HEZKUNTZA ETA KULTURA SAILA

LEHEN ZATIA

A. LERTXUNDI – J. LUKAS

**NE KEPA NAIZ,
ETA NIK MARRAZKIA
EGIN DUT**



NI KEPA NAIZ, ETA NIK MARRAZKIA EGIN DUT

Adina: Hiru urte.

Eredua: B

Interesgunea: GELA

Egitura: Nik duzu dut du
 zuk ez duzu ez dut ez du.
 hark
Ni naiz / Zu Zara / Hura da.

Kepa: Egunon!. Ni Kepa naiz.

Andereñoa: Egunon!. Zu Kepa al zara?

Kepa: Bai, ni Kepa naiz, eta nik arkatza dut.

Andereñoa: Zuk arkatza al duzu?

Kepa: Bai, nik arkatza dut. Eta aita marraztuko dut.


Andereñoa: Aita marraztuko al duzu?

Kepa: Bai, aita marraztuko dut.

Zizt-zizt, zizt-zizt,
arkatz beltza paper zurian,
zizt-zizt, zizt-zizt,
egin dut marrazkia.

Andereñoa: Hau nor da?

Kepa: Hau nire aita da. Nire aitak pipa bat du. Nire aitak pipa erretzen du.



Andereñoa: Kepa, marrazkia egin duzu. Orain ipuina kontatuko al duzu?

Kepa: Bai, Bai! Ipuina kontatuko dut, andereño.

Sagua: Ris-ras, ris-ras, ni sagua naiz. Nik gazta jan nahi dut.

Katua: Miau-miau, ni katua naiz. Nik sagua harrapatu nahi dut.

Txakurra: Uau-au!, ni txakurra naiz. Nik katua jan nahi dut.

Andereñoa: Bukatu al da ipuina, Kepa?


Kepa: Ez, ez da ipuina bukatu, andereño.

– Txakurrak katarroa du
eta atxis! atxis!,
ez du katua harrapatu.

– Katuak logurea du
eta uaum! uaum!,
ez du sagurik jan.

Andereñoa: Eta saguak? Zer egin du saguak?

Kepa: Saguak gazta jan du eta, gero, ohean lo egin du.



Andereñoa: Eta orain abestia abestuko al duzu?

Kepa: Bai, andereño, bai, orain abesti bat abestuko dut:



Txakurrak
katarro handia du,
eta atxis! atxis!
egiten du.
atxis! atxis!



Katuak
logure handia du,
eta uaum! uaum!
egiten du.
uaum! uaum!

Saguak
gazta bat jan nahi du
eta ris-ras!, ris-ras!
egiten du.
ris-ras! ris-ras!

**MI BEHATZA NAIZ,
ETA ZU,
NOR ZARA ZU?**



NI BEHATZA NAIZ. ETA ZU, NOR ZARA ZU?

Adina: Hiru urte

Eredua: B

Interesgunea: GORPUTZA.

Egitura: Ni naiz – Zu zara – Hura da.

Behatza: Ni behatza naiz.

Ahotsa: Ez, zu ez zara behatza. Zu zizarea zara.

Behatza: Eh? Eh?. Ni ez naiz zizarea. Ni behatza naiz. Begira.

Ikusten? Ni behatza naiz. Eta hau da nire abestia:

– Behatza,
txiki-txikia naiz eta
kle-kle-kle,
izena dut Kosme.


Ni behatza naiz. Ni ez naiz zizarea.

Ni Kosme naiz. Kosme behatza. Eta hau da nire abestia:

– Behatza,
txiki-txikia naiz eta
kle-kle-kle,
izena dut Kosme.

Sudurra: Atxis! Atxis! Ni sudurra naiz. Eta hau behatza da. Hau Kosme da. Hau nire laguna da. Kosme nire laguna da. Behatza Kosme da eta Kosme nire laguna da.

Ahotsa: Nor da zure laguna?
Behatza nire laguna da. Begira, begira.
Ikusten? Kosme behatza nire laguna da. Atxis! Atxis! Lagun ona da.



Atea jotzen dute: Pom! Pom!

Behatza: Txist! Txist! Nor da?

Ahotsa: Ni naiz!

Behatza: Baina zu nor zara?.

Ahotsa: Ni naiz, Koldo.

Behatza: Koldo da! Koldo da! Pasa, Koldo!.

Koldo: Bai, Koldo naiz. Ni behatz lodi-lodia naiz. Eta hau da nire abestia:

– Behatza,
lodi-lodia naiz eta,
klo-klo-klo,
izena dut Koldo.

Ni Koldo naiz. Ni Kosmeren laguna naiz. Ni sudurraren laguna naiz.

Behatza: Bai, zu Koldo zara, eta zu nire laguna zara, eta zu sudurraren laguna zara.

Zara eta zara,
zara eta zara,
zu nire laguna zara.
Laukiriku, laukiriku,
nire laguna zara! (*Sarean zun-zun doinuaz*)



Txakurra: Uau! Uau!


Behatza: Zu txakurra zara! Zu Pintto zara.

Haurra: luupii! luupii!

Behatza: Zu Mutila zara. Zu Pinttoren laguna zara.

Haurra: Mutila,
zintzo-zintzoa naiz
eta
iupili,
izena dut Patxi.

Txakurra: Txakurra,
alai-alala naiz eta
uau-aua-uau izena dut Pintto.



Behatza: Behatza,
luze-luzea naiz eta,
klo klo klo,
izena dut Kosme.

Koldo: Behatza,
lodi-lodia naiz eta,
klo-klo-klo,
izena dut Koldo.

Sudurra: Atxis! Eta ni? Atxis. Eta ni, nor naiz ni?

Behatza: Sudurra,
katarrozalea zara,
atxis, atxis,
zu sudurra zara.

FAMILIA BAT ZIRKOAN



FAMILIA BAT ZIRKOAN

Adina: Hiru urte.

Eredua: B.

Interesgunea: Familia

Egitura: Ni NOREKIN NATOR / ZATOZ / DATOR

Zirkoa, zirkoa,
zirkoa, dator,
zirkoa, zirkoa,
zirkoa dator.

1. **Haurra:** Zirkoa! Zirkoa!
2. **Haurra:** Eta nor dator zirkoan?



1. **Haurra:** Ez dakit... Begira, begira! Domatzailea dator.

1. Haurra: Nor zara zu?

Domatzailea: Ni zirkoko domatzailea naiz. Elefantea domatzen dut.

2. Haurra: Eta nondik zatoz?

Domatzailea: Tolosatik nator.

1. Haurra: Eta norekin zatoz?

Domatzailea: Nire semearekin nator.

Nire semea saltari trebea da

eta soka gainean ibiltzen da.

Begira, begira!


Han dator nire semea!

Soka gainean dator!

Ekilibrista: Egunon, aita!

Domatzailea: Egunon, seme!

1. Haurra: Nor zara zu?



Ekilibrista: Ni zirkoko saltaria naiz. Ni soka gainean ibiltzen naiz.

2. Haurra: Eta nondik zatoz?

Ekilibrista: Tolosatik nator.

1. Haurra: Eta norekin zatoz?

Ekilibrista: Nire aitarekin eta nire amarekin nator. Hau nire aita da. Nire aita domatzailea da.

2. Haurra: Eta zure ama?

Ekilibrista: Nire ama zalduna da.

Nire ama zaldi gainean ibiltzen da zutik.

Begira, begira!

Han dator nire ama!

Zaldi gainean dator!

Zirkoa, zirkoa,
zirkoa dator!.
Zirkoa, zirkoa,
zirkoa dator!.

Zalduna: Egunon, aita!

Domatzailea: Egunon, ama!

Zalduna: Egunon seme!

Ekilibrista: Egunon, ama!

1. Haurra: Eta zu? Nor zara zu?

Zalduna: Ni zalduna naiz. Ni zaldi gainean ibiltzen naiz.

2. Haurra: Eta nondik zatoz?

Zalduna: Tolosatik nator.

1. Haurra: Eta norekin zatoz?.

Zalduna: Domatzailea nire senarra da.

Saltaria nire semea da.

Eta, gainera, aitonarekin nator.

Aitona pailazoa da.

2. Haurra: Pailazoa? Eta zer egiten du?

Zalduna: Bai, pailazoa da,
eta abesti polit bat abesten du.
Begira, begira!
Han dator aitona,
eta kantari dator.




Pailazoa: Zirkoa, zirkoa,
zirkoa dator.
Zirkoa, zirkoa,
zirkoa dator.

Musika atseginak,
saltari trebeak,
artista lirain-lirainak.



Zirkoa, zirkoa,
zirkoa dator,
zirkoa, zirkoa,
zirkoa dator.

Pailazo alaiak,
lehoi ausartak,
kaiola handi-handiak.



Zirkoa, zirkoa,
zirkoa dator.
Zirkoa, zirkoa,
zirkoa dator.

BIGARREN ZATIA

KEINU TALDEA

MAX, MIX ETA MOX MENDIAN



MAX, MIX ETA MOX MENDIAN

Max: Egun on!

Mix: Egun on!

Mox: Egun on! Egun on! Grrrr.

Mix: Bai eguzki handia! Nolako eguraldia!

Max: Oh! Bai, zein polita den!

Mix: Ei! Goazen mendira!

Mox: Grrr, bai, bai, goazen mendira, goazen mendira!

Max: Janaria prestatuko dugu?

(Mix izkutatu egiten da eta sagar batekin ateratzen da)

(Moxek gazta bat ateratzen du eta lapikoan sartzen du)

Max: Bah! je, je, je, ba nik sorpresa bat dut...


Mix: Zer da? zer da?

Mox: Grrr. Zer da?, zer da?

Max: Ahhh! sekreto bat da!

Max: Jooo... Esan Max

Mox: Esan, esan grrrr...



Max: *Baaa, ba nik pastel gozo-gozo bat dut!*

Mix, Mox: *Ongi, ongi. Grrr ongi, ongi.*

Mox: *Eta zuk Mix, zer duzu eskuan?*

Mix: *(Oihuka) Ahhh! Ogia dut!*

Max: *(Dena prest dago irtetzeko) Begira, begira zein tortila ederra! Bo, goazen mendira.*

Denak: *Upiiii...*


Mix: *E, eta lapikoa!*

Max: *Egia. Etorri lapiko!
(Mendian daude)*

Mix: *Begira, begira zein leku polita! Begira, tximeleta bat. Uuum, bai usain goxoa.*

Max: *(tramankuluak bertan uzten dituzte) Puffa! ni nekatuta nago! Eseriko gara?*

- Mox:** Grrr... Ura ekartzera noa!
- Max:** Non dago mantela?
- Mix:** Lapikoan dago.
- Max:** Ipini ezazu lurrean!
- Mix:** Max, tori tortila.
- Max:** A! Ekarri gazta eta ogia
- Mix:** Tori. Eta non dago ura?
(Zarata arraro bat entzuten da POOFF. Mox da. Handik hurbil dagoen erreka batera erori da. Mixek eta Moxek harriturik begiratzen diote elkarri)
- Mix:** Zer da hots hori?
- Max:** Ene, ene, zer egiten duzu uretan Mox. Mix ekarri erratza!
- Mix:** Tori. Mox itxoin piska bat! Orain lagunduko dizugu!
- Mox:** Grrr, grrr... Max Mix lagunduuuuu...
(Maxek erratza botatzen dio Maxi. Moxek heltzen du eta errekatik ateratzen dute)
Grrr... Eskerrikasko lagunak.
- Max:** Zer moduz Mox?
- Mox:** Grrr... hotz naiz baina ondo nago. Bai susto handia. Baina nolako gosea dudan!
- Max:** Ba, goazen zerbait jatera.
(Handik gutxira baurre bat entzuten da urrutian: Muuuuu... Ez dute kasorik egiten. Beste baurre bat entzuten da hurbilago, baina goseak daude eta ez dira mugitzen. Hirugarren aldiz beste baurre bat entzuten da. Bazkaltzeari uzten diote. Harrituta daude)
- Mox:** *(Hegaz doan zezena ikustean)* Zer da hori? grrrr...
- Mix:** *(Salto batez desagertzen da)* Miau, miau...! Zezen bat!
(Zezena korrika hasten da gure lagunaren atzetik eta lasterketa zoro bat gertatzen da)
- Ontzia:** Ui, ui, ui, ... Banoa etxera, banoa etxera.
- Zezena:** Mmmmm... Zer da hori? *(Bazkarira hurbiltzen da. Jan egiten du)* Oso goxoa da.
- Mix:** Non dago zezena? *(arnas-estuka)*
- Max:** Ez dago hemen



Mox: *(Bazter batetik agertzen delarik) E?*

Max: Ez dagoela hemen! Itsoin piska bat! *(Katua piskanaka irtetzen da, batera eta bestera begiratzuz. Bazkarira hurbiltzen da eta bapatean gelditzen da)*

Mix: Aaaaaah! Non dago tarta?

Max: Zezenak jan du. Itsusia! Goazen etxera!

Etxean daude orain

(Maxek usaintzen du; Mix eta Mox zerbaitez konturatzen dira eta usandu egiten dute)

Mix, Mox: Snif, snif, snif. Zezen gaiztoa!

Mox: *(Lapikora hurbiltzen dira jakinminez)*

Grrr, grrr, grrr, ... Bai usain ona! Zer da hori? Hara, oso handia da. Begira, begira nolako pastela.

(Lapikoaren barrura begiratzuz dute. Lapikoak soinu hadiagoa ateratzen du. Halako batean lapikotik tarta handi bat ateratzen hasten da piskanaka)

Denak: Ongi, ongi, ongi!!! Eskerrik asko laguna!!!

Mix: *(Tartan hatzamarra sartuz) Zein gozoa den! Eskerrik asko.*

MIX
GAIKORIK
DAGO



MIX GAIXORIK DAGO

Max eta Mox gelan daude: Mox pianoa jotzen ari da eta Max dantzan. Mix leihotik sartzen da, gaixorik, arrastaka, leihora iristen da eta erori egiten da. Denak hurbiltzen dira egiten ari zirena utzirik.

Mix: Ai! ai! Ez dakit; ez nago ondo.

Mox: Gaixorik zaude?

Max: Aurpegi txarra duzu! Ea ea sartu ohera eta ongi tapatu. Gaixo hori!
(*Mix hoztuta dago eta dardarrez hasten da*)

Mox: Ongi tapatu, ongi tapatu. Zer duzu Mix?

Mix: Hotzak nago

Mox: Grrr, hotzak nago, hotzak nago ...

Max: Isildu zaitez, eta ekarri arropak!

Mox: Nik manta bat dut!

Max: Ba nik jertsea dut!

Mox: Eta orain jaka bat!

Max: Mix! begira, zer bufanda polita!
(*Moxek bufanda kentzen dio Maxi*)

Max: Eh... zertan ari zara!

Mox: Begira, begira nolako bufanda. Grrrrrr...

Max: Ez, hori ez da bufanda. Horiek galtzerdiak dira.

Mox: Grrrrrr... galtzerdiak, galtzerdiak...

Max: Eta orain nola zaude Mix?

Mix: Oraindik hotzak nago

Mox: Hotzak, hotzak nago

Max: A! Itxoin piska bat; poltsa beroa ekarriko dut.

Mox: (*Bila doaz eta jartzen diote*) Begira Mix, gorri-gorria da.

Max: Mox ekarri termometroa!

Mox: Grrr... Grrr... termometroa, termometroa...

Mix: (*Beldurtuta*) Zertan ari zara?



Max: Jaso beso hori eta geldirik egon (*Besapean jartzen dio*) Esne beroa nahi duzu?

Mix: Bai, bai nahi dut.

Mox: Eta nik? Grrff, nahi dut, nahi dut, grrrr...

Max: Isildu zaitetz! (*Max esne bila doa. Bitartean termometroa goraka doa*)

Mox: Max, Max!! Etorri Max!

Max: Zer gertatzen da? Ene bada! Ui, ui, ui, ... Edan esnea eta itxoin piska bat.

Mix: Ezin dut edan! (*Ezin du edan. Moxek laguntza ematen dio. Bitartean irte-
tzeko prestatzen da*)

Max: Gero arte, banaoa.

Mox: Nora zoaz Max?

Max: Basora noa, agur.

Max atetik irtetzen da eta mendira doa, tximeletak harrapatzera, belarrak jasotzera etab.

Max: Kaixo! Hemen naiz! Zer moduz katu polit hori!

Mix negarrez ari da.

Mox: Grrr... Grrrr... kalentura du kalentura du...

Mix: Ez nago ondo.

Mox: Grrr ez nago ondo, ez nago ondo.

Max: Zu isildu zaitetz eta zuk Mix itxoin piska bat polita. Gauza gozo-gozo bat prestatuko dut zuretzat (*Maxek sutan jartzen du lapikoa*)

Igel berdea
Tximeleta horia
Lore urdina
Txitxare txikia
Muskaria zuri – gorria

(Nahasi egiten du eta konjuro hau botatzen du)

Zin zala bi
igela hemendik
tximeleta horia
eta lorea urdin
txatxitxukaria
txitxare eta muskaria.

Max: (*Edabeaz betetzen du goilara bat eta Mixi ematen dio*) Begira Mox. Bai usain ona! Ea, ireki ahoa Mix!

Max: Ona dago?



Mox: Ona dago bai, ona dago.

Max: Oso ona dago Mix, tori!!

Mix: Ummmmmmmm zein gozoa den!!

Max: Eta orain begira Mox...

(Mixi aurpegiaren kolorea aldatzen zaio: berdea, urdina, marroia, eta sal to handi bat ematen du)

Mix: *(Harro, harro)* Oso ondo nago!! Eskerrik asko lagunok!

(Denak farrez saltoka eta kantaki hasten dira)



MAX, MiX ETA MOX
iLARGiAN

MAX, MIX ETA MOX ILARGIAN

(Max, Mix eta Mox etxean daude; Mix teleskopio batez ilargia begiratzzen ari da)

Mix: Zer gau ederra! Begira ilargia... eta izarrak, begira Mox, begira zein polita den...

Max: Hara, zein polita den!

Mox: Greee! Zein polita den! eta zer da hori...?

Max: Hori izarra da.

Mox: Utzi lekua!

Max: E, Mox alde hemendik!

Mix: Zein handia den! Eta nolako argia duen!

Mix: Zertan ari zara?

Max: Nora zoaz?

Mox: Ilargira noa, ilargira noa!

Mox: Ezin dut!


Max, Mix: Zer moduz!

Mox: *(Intzirika)* Oh... ezin dut. Gaizki nago! Ezin naiz ilargira joan!

Mix: Noski, ni ere gaizki egongo nintzateke! Ez goaz ilargira!

Mix: Jo, Max, ala, goazen ilargira... Ba Max... goazen...

(Maxek berriz pentsatzen du, baina azkenik animatzen da)



Max: Bueno, goazen ilargira!

Mox: Ilargira goaz, ilargira goaz!

Mix: Upiii, ongi, ongi!

(Erratzean agertzen dira. Bostetik zerora zenbatzen dute. "Zero" aipaturik eztanda entzuten da eta pertsoniak espaziora abiatzen dira. Beste mundu batera iristen dira)

Max: Mix, Mox... non zaudete? Oso ilun dago hemen!

Mox: Gree, non zaude, non zaude? *(Kraterratik agertzen direlarik)*

Mix: Eh... Mox, non dago Max?

Mox: Ez dakit!

Max: Ku-ku, hemen nago!

Mix: Hara. Mendiak!

Mix: Eh... Max, kaixo

Mox: Greee... Kaixo, kaixo, kaixo...

Max: Gustora nago hemen jolasten!

Mix: Eta ni ere, oso pozik nago ...!

Mox: Ehhhhhh Max! Mix! non zaudete! Etorri azkar! Begira, begira zer da-
goen hemen!

*(Objeto hegalaria bat azaltzen da, Max Mix eta Moxek zerbait arraroa so-
matzen dute barruan. Arreta handiz hurbiltzen dira)*

Marziano: *(Barrez)* Hau gure etxea da, txis poin! Ni martziano bat naiz.

Marziana: Sartu, sartu barrura! txis poin!

Mox: Greee, greee...

Max: Alajaina... bai itsusia! Zenbat gauza!

Mix: Zer da hau!

Max: Hara... zenbat bonbila!

Mox: Goseak nago. Goseak nago. Greee greee...

Max: Martziano, martziano, gu goseak gaude!

Martzianoa: Itxoin piska bat, orain ekarriko dizuet janaria

*(Martzianoak pantaila baten ondoan jartzen dira. Kristalezko kutxa bate-
tik eta alanbike baten bidez pastila borobil bat agertzen da)*



Mox: Hara... borobila da... Zer da hori?
(Martziano batek gauza bat ematen dio Mixi)

Mix: Hau ez da ogia!

Max: Ez, ez, hau ez da gazta!

Mox: Ez da gaileta ere!... gree gree eta oso txarra dago!

Max: Bai. Bai, oso txarra dago!

Mox: Max, ni aspertuta nago, goazen kanpora!

Max: E bai, goazen kanpora. Etorri martzianoak!

Ahotsa: Martziano jaunak. Etorri etxera... txis poin...

Martzianoak: Lagunak, gu Martera goaz... txis poin... itxoin piska bat...
Martzianoak desagertu egiten dira.

Max: Zer ekarriko dute!

Mox: Ez dakit!

Martzianoak bengala bat ematen die. Agurtzen dute elkar eta Mix, Max eta Mox erratz gainean desagertzen dira.

Denak: Agur, agur.

MAX, MiX ETA MOX

IRLA BATEAN



MAX, MIX ETA MOX IRLA BATEAN

(Max, Mix eta Mox logelan daude. Txirrinaren soinua entzuten da eta Max atea irekitzera doa. Postaria da)

Max: Nor da? Nor da? Begira, begira. Eskutitz bat.

Mix: Eta norentzat da?

Max: Hemen Mox jartzen du.

Mix: Ba! Beti Moxentzat.

Mox: Upiiii! Moxi da?

Max: Eta nor da Moxi?

Mox: Nire lagun bat.

Max: Ea! Irakurri!

Mox: Entzun Mix. "Kaixo Mox. Moxi naiz."

Mix: *(Zirikatzen)* Moxi naiz...

Mox: "Irla batean nago"

Mix: Irla batean nago *(errepikatzen)*

Mox: "Irla hau oso polita da."

Mix: Oso polita da...

Mox: Isildu zaitetz txotxolo!! "Pirata eta ni irlan bizi gara".

Mix: Pirata bat!!

Mox: Bai Moxiren laguna pirata bat da. "Etorri irlara. Muxu handi bat MOXI."

Mix: Muxu bat Max (*farrez*)

Mox: Max, polita, goazen irlara!

Max: Itxoin piska bat, non dago irla hori?

Mox: Itsasoan dago, Max.


Max: Uuummmm, itsasoan. Ezin dut. Ni ez noa irla horretara.

Mox: Jooo Max, oso polita da irla. Oso eguraldi ona dago eta eguzki handia.

Max: Ez dakit, ez dakit. Beno, beno, goazen ba!!

Mox, Mix: Ongi, ongi... Goazen...

Max: Eta nola goaz? Grrrr...



Mix: Hegaz erratzean

Max: Erratzean? Ez, ez, ez. A! Badakit: itsasontziz!

Mix: Itsazontzirik ez dugu. A bai, lapikoan joango gara.

Max: Ea ba, goazen.

Mix: Zenbat ur!! Itsasoa handia da e, Mox?

Mox: Grrr... Grrrr handia da, handia da.

Max: Abestuko dugu.
Kanta abesten dute hirurek

Mox: Zer moduz Mix?

Mix: Oso ondo nago baina egarri naiz.

Mox: Hemen ez dago urik!

Mix: Ez dagoela urik, hemen ur asko dago. *(Mixek itsas ura edaten du)*

Max: Ja, ja, ja, ... ez edan hori, txarra da.

Mox: Hara!! Ez dago haizerik? Zer egingo dugu?

Max: A! Badakit, nik erratza hartuko dut. *(arraunean hasten dira)*
Uff!! nekatua nago. Ezin dut!! A bai, magia egingo dut:
Zin zala bi
hodeia etorri
*(Bapatean hodei handi bat agertzen da eta lapikoaren oihala haizez bete-
tzen du)*

Mix: Upii!! Goazen aurrera!!

Mox: Grrr... Grrr... Begira, begira han dago irla! Ikusten dut, ikusten dut...

Max, Mix: Zeeeeeeeerrr...

Mox: Ikusten dut pirata bat.


Mix: Eta zertan ari da!!

Mox: Ez dakit!

Max: Eta nolakoa da?

Mox: Grrrrrr... Begi bat du. Begibakarra da.
Irlara heltzen dira.

**Moxi eta
pirata:** Ongi etorri lagunok, ongi etorri!!



Mox: Grrr... Zer moduz?

Moxi: Ni oso ondo nago eta zuek?

Max: Oso ongi

Moxi: Hau Santi bizar beltz da.

Santi: Kaixo lagunok!!

Mox: Grrr... Hau Max da (*Maxek agurtzen du eta lorezko koilare bat ipintzen diote*) Eta hau Mix da (*Piratak beste lorezko koilarea ipintzen dio*)

Max: Zein polita den irla hau.

Mox: Grrr... Bai, bai, oso polita da, oso polita da.

Santi: Etorri, etorri irla ikustera

Mix: Hara!! Zein polita den hau! Zuhaitzak, loreak, ... Hara! Zer zarata da hori? Ahatetxoak! Uf, joan dira!

Abere gehiago bizi dira irlan: untziak, tximuak ...

Santi: Eta orain, etorri, etorri. Hau nire sekreto da. *(Aitzuloaren sarreran)*

Mox: Grrr... Grrr... sekreto bat, sekreto bat.

Mix: Ala! sekreto bat!! Ongi, ongi... Zer dago barruan?

Mixa: Itxoin, itxoin piska bat, orain ikusiko dugu. *(Aitzulora sartzen dira)*

Mix: Miau, miau beldur naiz...

Mox: Non zaude Moxi? Grrrrr...

Moxi: Hemen nago. Grrrr... Eman eskua.
Gela argi eta dotore batera iritsi dira.



Max: Zer da hori?

Santi: Hori timoia da.

Mix: Zertarako balio du?

Santi: Itsasoan ibiltzeko.

Mox: Eta han atzean dagoena?

Santi: Hori itsasontzia da.

Mox: Guk lapikoa dugu e, Max?

Max: Bai lapikoa, bai.
(Mixek ezpata eta txano zahar bat harturik dolu batera gonbidatzen du pirata)

Mix: Eh, Santi begira, begira... *(denak farrez)*. Oso indartsua sentitzen naiz.

Santi: Ea Mix!

Mix: E, e!! lagunak gara *(Ezpatak utziaz. Piratak gogoz farre egiten du)*

Santi: Bai, bai lagunak gara. *(Elkar besarkatzen dute)* Txantxetan ari gara!

Max: Begira nolako koilare polita!

Moxi: Nirea da. Santik erregalatu zidan.

Mix: Eta zer dira horiek?

Santi: Horiek arrainak dira

Mix: Ah! bai, arrain gorria...

Mox: Berdea...

Mix: Urdina...

Mox: Eta horia ere bai!

Santi: Bo, lagunok goazen kanpora.

Mox: Goazen, goazen.

HIRUGARREN ZATIA

MASKARADA

ZAUNKA EGITEN
EZ ZEKIEN TXAKURRA



ZAUNKA EGITEN EZ ZEKIEN TXAKURRA

TXAKURMARI OILATEGIAN

Txakurra: Ni Txakurmari naiz. Txakur guztiek badakite zaunka egiten, baina nik ez. Ez dut ikasi.

Oiloa: Kaka, kaka, toki guztietan kaka eta kaka. Rodolfo! Rodolfo! Etorri! Arin!

Oilarra: Zer dago hemen?

Oiloa: Zer dagoen? Kaka. Zure lagunaren kaka.

Oilarra: Txakurmarirena!

Oiloa: Bai, txakur zikin horrena!

Oilarra: Egia da! Aj! Txakur hori zerria da, eta tentela!

Oiloa: Zerria eta lotsagabea.

Oilarra: Zerria, lotsagabea... eta ez daki zaunka egiten.

Oiloa: Nola! Ez daki zaunkarik egiten!

Oilarra: Ez.

Oiloa: Ba irakatsi zeuk.

Oilarra: Ideia ona da. Irakatsiko diot. Txakurmari! Txakurmari!

Txakurra: Zer, zer.

Oilarra: Zuk ez dakizu zaunkarik egiten, ezta?

Oiloa: Honek ez daki ezer, bakarrik kaka egiten.

Txakurra: Ez, ez dut ikasi.

Oilarra: Eta ikasi nahi duzu?

Txakurra: Bai! Bai!

Oilarra: Ba begira, nik irakatsiko dizut.

Txakurra: Zuk?


Oilarra: Nahi baduzu, noski.

Txakurra: Bai, bai. Baina zu... oilarra zara.

Oilarra: Horrek ez du axolarik.

Aber mutur horiek; hola ipini behar dituzu... ez, horrela ez. Aber... bai, horrela. Orain entzun ondo. Kikiriki! Kikiriki.

Txakurra: Ki, ki, ki, ki.



- Oilarra:** Ez, ez, horrela ez. Kikiriki!
- Txakurra:** Kikirri, kikirri.
- Oilarra:** Beno, hobeto dago!
- Oiloa:** Uj! Zer txarki egiten duen!
- Txakurra:** Kikiriki! Kikiriki!
- Oiloa:** lxxxxxiiii! Txitak esnatuko dira!
- Txakurra:** Ze ondo! Ba dakit zaunka egiten.
- Oiloa:** Bai.
- Oilarra:** Bai, ederki egiten duzu. Baina hemendik aurrera kanpoan egin behar-ko duzu.
- Oiloa:** Urrun, urrun. Hemendik urrun.
- Oilarra:** Gu asko gara eta ez dago tokirik zuretzat.
- Oiloa:** Eta gainera kaka egiten duzu.
- Txakurra:** Bale! Etortzen naizenean egingo dut. Kukurruku.
- Oilarra:** Adio laguna.
- Oiloa:** Agur.
- Txakurra:** Agur, agur.

TXAKURRA ETA AZERIA

- Txakurra:** Uy! Badakit zaunka egiten. Ikasi dut. Iupi, iupi! Orain praktikatu behar dut. Kikiriki! Kikiriki! Beti praktikatuko dut, iupi, iupi, kukurruku, kukurruku.
- Azeria:** Ez da posible! Zer entzun dut!
- Txakurra:** Kikiriki! Kikiriki!
- Azeria:** Bai, egia da, oilarra da. Nire oilar maitea!
- Txakurra:** Kukurruku, kukurruku.
- Azeria:** Ze ederto! Azkenean jan egingo dut. Baina non dago? Nor sartu da? Ez dut ikusten.
- Txakurra:** Kikiriki! Kikiriki!

Azeria: Berdin da. Aiztoa ekarriko dut, (*Sartzen da aiztoa hartzeko eta berehala irteten da aiztoarekin*) eta serbilleta... eta sardeska... mmmm zer gozoa! Orain ezkutatuko naiz eta deituko dut! Oilarra! Oilarra! Oilarra!

Txakurra: Kikiriki! Kikiriki!

Azeria: Oilarra!!!

Txakurra: Kikiriki

Azeria: Oilarra? Oilarra? Ah! Zu ez zara oilarra!

Txakurra: Noski, txakurra naiz.

Azeria: Txakur nazkagarria! Tranpa egin didazu!

Txakurra: Tranpa? Ez, azeria, nik ez dut tranparik egin.

Azeria: Bai. Ezkutatu zara ni harrapatzeko.

Txakurra: Nik ez zaitut harrapatu nahi.

Azeria: Bai, zuk eta ehiztariak.

Txakurra: Zer?

Azeria: Ehiztaria!



Txakurra: Hemen ez dago ehiztaririk.

Azeria: Ah ez! Ez dago ehiztaririk eta zuk ez nauzu harrapatu nahi, ezta.

Txakurra: Noski ezetz.

Azeria: Orduan jakin ahal dezaket zer egiten duzun hemen?

Txakurra: Praktikatzen ari naiz.

Azeriia: Praktikatzen?

Txakurra: Bai, zaunka egiten ikasten ari naiz.

Azeria: Nola? Txakur bat zaunkan ikasten.

Txakurra: Bai, eta nahiko ondo egiten dut. Ia, ia ondo egiten dut.

Azeria: Ai ene, ai ene! Txakur hau tentela da! Lerdoa da! Zaunka egiten ikasi behar duela.

Txakurra: Bai, nahi baduzu egingo dizut.

Azeria: Bai, egin, egin.

Txakurra: Entzun: Kikiriki! Kikiriki!

Azeria: Nola? Baina hau, hau ez da posible.

Txakurra: Ondo egiten dut, ezta?
Entzun, entzun: Kikiriki! Kikiriki!

Azeria: Mesedez, ja, ja, ja, hau ez da posible. Ja, ja, faborez, ja, txakur hau zoratuta dago.

Txakurra: Kukurruku, kukurruku.

Azeria: Ja, ja, ja, baina, baina, ja, ja, ja, ez dut soportatzen, ja, ja.

Txakurra: Kukurruku, Kukurruku.

Azeria: Hil, hil egingo naiz, ja, ja, ja.

Txakurra: Kukurruku, kukurruku.

Azeria: Faborez, mediku bat, mediku bat, ja, ja.

Txakurra: Kukurruku, kukurruku.

Azeria: Ja, ja, hiltzen naiz, ja, ja, ja, (*erotzen da*).

TXAKURRA ETA KUKUA

Txakurra: Snif, snif, ez dago eskubiderik; oilarrak etxetik botatzen nau eta gero honek barre egiten dit, snif, snif, ez dago eskubiderik.

Kukua: kuku, kuku
kantatzen dut
kuku, kuku
ta alai nago

Txakurra: Snif, snif. Nor da? Snif, nor, nor da?

Kukua: kuku, kuku
kantatzen dut
kuku kuku
izena dut

Txakurra: Kukua!

Kukua: Bai, kukua naiz. Eta kuku egiten dut.

Txakurra: Eta alai zaude, snif.

Kukua: Bai, eta zu zergatik zaude hain triste?

Txakurra: Ba! Zuri ez zaizu axolarik!

Kukua: Ah beno! Kuku, orduan agur! Kuku kuku.

Txakurra: Eh! Eh! Kuku, etorri.

Kukua: Zer?

Txakurra: Etorri, behar zaitut.

Kukua: Zertarako?

Txakurra: Begira, nik ez dakit zaunka egiten.

Kukua: Arraioa! Zu ez zara txakurra ala?

Txakurra: Bai, baina ez dakit zaunka egiten.

Kukua: Arraioa! Eta nola?

Txakurra: Ez dut ikasi.

Kukua: Ba oso erreza eta sinplea da. Kuku.

Txakurra: Bai?

Kukua: Noski baietz.

Txakurra: Eta zer egin behar dut ikasteko?

Kukua: Arbola haren adarra hartu eta ahoan sartu.


Txakurra: Arbolaren adarra?

Kukua: Bai, bi hartuko ditut. Bat zuretzat eta bestea... niretzat.

Txakurra: Ez dut ezer ulertzen. Kuku hau zoratuta dago!

Kukua: Tori! Sartu ahoan.

Txakurra: Honela?



Kukua: Ez, osoa ez. Begira nola ipintzen dudan nik! Horrela.

Txakurra: Orain ondo dago?

Kukua: Ederto, ederto. Orain entzun: kuku, kuku, kuku.

Txakurra: kukukukuku

Kukua: Ez! Kantatu behar duzu: kuku kuku kuku.

Txakurra: Kukuku kukuku kukuku.
Kukua: Eh! Desafinatu gabe: kuku, kuku.
Txakurra: Kuku, kuku kuku.
Kukua: Horixe da! Kuku, kuku.
Txakurra: Kuku, kuku, ze erraza den!
Kukua: Noski baietz.
Txakurra: Ikasi dut. Orain badakit zaunka egiten!
Kukua: Orain adarrik gabe (*kentzen dio*).
Txakurra: Kuku, kuku.
Kukua: Ederto. Nik bezain ondo egiten duzu.
Txakurra: Eskerrik asko, eskerrik asko. Ikasi dut!
Kukua: Bai, ikasi duzu, eta ni banoa.

EHIZTARIAK TIROKA

Txakurra: Agur
lupi! kuku, kuku. Ikasi dut! Hurra!
Orain benetako txakurra naiz, kuku, kuku.
Hip hip hurra! llllllupi!
PUN! PUN! PUN! (*Tiroak*)

Txakurra: Eh! Zer da hau?
PUN! PUN! PUN!

Txakurra: Ehiztariak!!! (*Ezkutatzen da*).

1 Ehiztaria: Godofredo, hortik izan da!
2 Ehiztaria: Ez, Rigoberto, hortik izan da!
1 Ehiztaria: Ba ez, esan dut... hortik izan dela.
2 Ehiztaria: Rigoberto... eta non dago erbia?

- 1 Ehiztaria:** Erbia? Ez! Basurdea!
- 2 Ehiztaria:** Ez! Artatxoria!
- 1 Ehiztaria:** Ez! Kalatxoria!
- 2 Ehiztaria:** Ez! Katagorria!
- Txakurra:** Kuku, kuku.
- 1 Ehiztaria:** Jo dut, jo dut!
- 2 Ehiztaria:** Ez, Rigoberto. Nik jo dut.
- 1 Ehiztaria:** Barkatu Godofredo, baina nik jo dut.
- 2 Ehiztaria:** Nik
- 1 Ehiztaria:** Nik
- 2 Ehiztaria:** Rigoberto, nik, nik eta nik.
- 1 Ehiztaria:** Nik, nik eta nik.
- 2 Ehiztaria:** Alto! Eta non dago kukua?
- 1 Ehiztaria:** Non dagoen kukua? Non dago kukua?
- 2 Ehiztaria:** Hortik dago.
- 1 Ehiztaria:** Ez, ez, hemendik dago.
- 2 Ehiztaria:** Hortik dagoela esan dut.
- 1 Ehiztaria:** Eta nik esan dut hemendik dagoela.
- 2 Ehiztaria:** Rigoberto!
- 1 Ehiztaria:** Godofredo!
- 1, 2 Ehiztariak:** Zer? Eh!
- 1, 2 Ehiztariak:** Ba, ba, grrruaf, bbruu
- 1 Ehiztaria:** Godofredo!
- 2 Ehiztaria:** Zer
- 1 Ehiztaria:** Aldegin du.
- 2 Ehiztaria:** Kaguen...
- 1 Ehiztaria:** Aldegin du baina harrapatuko dugu.
- 2 Ehiztaria:** Hori! harrapatuko dugu.



1 Ehiztaria: Zer egin harrapatzeko...?

2 Ehiztaria: Zer egin? Zer egin?

1 Ehiztaria: Supermerkadora joan.

2 Ehiztaria: Nora?

1 Ehiztaria: Supermerkadora!

2 Ehiztaria: Eta han harrapatuko...

1 Ehiztaria: Ez, erosiko dugu.

2 Ehiztaria: Arraioa!

1 Ehiztaria: Bai, eta erreko dugu.

2 Ehiztaria: Eta jango dugu.

1 Ehiztaria: Eta kaka egingo dugu.

2 Ehiztaria: Hori, hori!!!

1 Ehiztaria: Godofredo!

2 Ehiztaria: Rigoberto!

1, 2 Ehiztariak: Avanti!!!! Tralala, tralala, tralala.

ZAUNKA IKASTEN

Txakurra: Uf! Joan dira azkenean.

Jope! Ehiztari hauek zoratuta daude. Danba danba hasten dira eta ni...

2 txakurra: Guau, guau.

Txakurra: Hara! nor dator orain!

2 Txakurra: Guau, guau.

Txakurra: Arraioa! Txakur bat!

2 Txakurra: Noski, zu bezala!

Txakurra: Baina, baina, nondik irten zara?


2 Txakurra: Nondik? Ehiztarien txakurra naiz. Txakurra naiz, zu bezala!

Txakurra: Orduan zuk ez nauzu engainatuko!

2 Txakurra: Nola! Nik lagun bat engainatu! Faborez!

Txakurra: Ai! Zurekin zaunka egiten ikasiko dut.

2 Txakurra: Nola? Ez dakizu zaunka egiten?



- Txakurra:** Ez, nik badakit hitz egiten oilarreraz eta kukueraz eta behieraz eta katueraz, ... baina txakurren modura hitz egiten ez.
- 2 txakurra:** Baina, nola da posible hori?
- Txakurra:** Uf! Historia luzea da! Baina orain... irakatsi zaunka egiten.
- 2 txakurra:** Guztiz erraza da.
- Txakurra:** Ea, irakatsi.
- 2 Txakurra:** Beno, entzun ondo: guau, guau, guau.
- Txakurra:** Gua, gua, gua
- 2 txakurra:** Errepika nirekin: guau, guau, guau.
- 2 Txakurra,**
txakurra: Guau, guau, guau.
- Txakurra:** Guau, guau, guau. Ze erraza den! Biba! Ikasi dut! Guau, guau, guau.
- 2 txakurra:** Aizu! Ideia bat bururatu zait!
Zuk badakizu hitz egiten behieraz eta katueraz eta txorieraz...
- Txakurra:** Eta orain txakurreraz.
- 2 txakurra:** Eta badakizu kantatzen?
- Txakurra:** Bai, nik rock kantatzen dut, eta opera, eta nahi duzuna.
- 2 txakurra:** Orduan, zu kantaria izan zaitezke eta kantatu hizkuntza guztietan!
- Txakurra:** Bai, egia da. (*kanta*) Guau, guau, gau, guau...

DANBORLARI MAJiKOA



DANBORLARI MAGIKOA

Kontalaria: Azkenean ere guda bukatu da. Danborlariarentzat gerra bukatu da. Armak utzi ditu eta etxerantz ibiltzen hasi da. Bidean herriak eta itsasoak ikusi ditu, pertsonak eta abereak ere ezagutu ditu. Baina ez da gelditzen, mendian gora, mendian behera, bere etxerantz oso pozik doa.

Ez zaio dirurik geratzen, ez dauka ezer, danborra besterik ez. Eta danborraz bere ibilaldia alaitzen du.

Gaur asko ibili da eta nekatuta dago. Hara! eta hori, nor ote da hori? Bah! berandu da eta deskantsatzeko lekua bilatzen hasten da. Belar eta adarrak biltzen ditu eta mendien beso artean sua pizten du gaua pasatzeko.

Atsoa: Gabon soldadua, txanpon bat emango didazu?

Danborlaria: Eman, eman, gutxi emango dizut.

Atsoa: Emaidazu txanpon bat, faborez.

Danborlaria: Ez dut txanponik, ez dut txakurtxikirik ere.

Atsoa: Mesedez soldadua, emaidazu zerbait.

Danborlaria: Egia esaten dizut, ez dut ezer.

Atsoa: Ziur zaude? Begira ezazu poltsikoan.

Danborlaria: Poltsikoan ez dut ezer ere, baina nahi baduzu begiratuko dut. Arraioa! Txanpon bat!

Atsoa: Ikusi duzu? Txanpon bat atera duzu!

Danborlaria: Ez da posible! Nik ez daukat dirurik, egia! Benetan!
Tori! nik ez dut behar.
Baina, nik ez daukat ezer, danborra bakarrik.

Atsoa: Gehiagorik ez duzu izango?

Danborlaria: Gehiago? Ezer ere ez. Ez dut...

Atsoa: Zergatik ez duzu begiratzeko kapelan?

Danborlaria: Kapelan?

Atsoa: Bai, kendu kapela.

Danborlaria: Oooh! Beste bat.

Atsoa: Ikusi duzu? Beste txanpon bat.

Danborlaria: Nondik irten da dirua? Nik ez dut ezer ekarri.

Atsoa: Begira ezazu botetan.

Danborlaria: Botetan?

Atsoa: Bai, kendu botak

Danborlaria: *(lurrean jezartzen da eta kentzen ditu botak; buelta ematen dio bati eta KLINK beste txanpon bat)* Beste bat!!!

Atsoa: Eman buelta besteari



Danborlaria: *(Buelta ematen dio eta pilo bat irteten da)* Oooh! Zenbat txanpon! Urrezkoak dira!

Atsoa: Aberatsa zara, soldadua, diru asko duzu!

Danborlaria: Ez dut behar dirurik. Nire etxea hurbil dago eta oinez noa. Tori! Zurretzat dena.

Atsoa: Eskerrik asko, soldadua. Nik ere zerbait emango dizut txanponen truke: Hau da nire oparia: danborra jotzen duzunean denak dantzan hasiko dira.

Danborlaria: Orduan beti izango da jai: nik joko dut eta besteek dantza egingo dute.

Atsoa: Eta beste gauza bat: danborra jotzen duzun bitartean ez da inor geldituko.

Danborlaria: Oh! Eskerrik asko, andrea. Askotan erabiliko dut habilidade hau. Baina nor zara zu?

Atsoa: Agur soldadua, joan behar dut. Ez nauzu berriz ikusiko. Zoriontsua izan zaitez soldadua!

Kontalaria: Danborlaria harrিতuta dago. Emakumea agertu eta desagertu egin da. Enkantamendu bat eman dio baina berak ez du ezer nabaritzen. Konturatu gabe gaua etorri zaio. Mendien zurrumuruaz eta haizeen kantaz loak hartu du. Baina ez luzaro. Oraindik bideak eta ibarrak ditu aurretik eta birritan pentsatu gabe jarraitu egiten du. Danborlaria alai eta zoriontsu bere etxera doa, sumatu gabe laster enkantamendua erabili beharko duela.
(Hiru pirata agertzen dira)

Hirurek: ALTO! ALTO! ALTO! ALTO! ALTO! GELDI! GELDI!

1 pirata: Poltsa ala bizia?

2 pirata: Hori, poltsa ala bizia?

3 pirata: Hori, hori, poltsa ala bizia?

Danborlaria: Poltsa? Nik ez dut poltsarik.

1 pirata: Dirua ala bizia?

2 pirata: Hori, dirua ala bizia?

3 pirata: Hori, hori, dirua ala bizia?

Danborlaria: Dirua? Nik ez dut dirurik.

1 pirata: Ez duzula dirurik?

2 pirata: Nola, ez duzula dirurik?

3 pirata: Nola, nola, ez duzula dirurik?

Danborlaria: Ez, ez dut dirurik.

1 pirata: Ez nazazu engaina, soldadua!

2 pirata: Eh! Ez nazazu engaina, soldadua.

3 pirata: Eh! Eh! Ez nazazu engaina, soldadua!

Danborlaria: Engainatu?! Nik ez dut inor engainatzen. Ez dut ezer.


1 pirata: Hori ikusiko dugu.

2 pirata: Hori, hori ikusiko dugu.

3 pirata: Hori, hori, hori ikusiko dugu.

Danborlaria: Ez duzue gauza handirik ikusiko, ez daramat ezer. Danborra bakarrik.

1 pirata: (*bigarrenari*) Begira poltsikoetan.



- 2 pirata:** (*hirugarrenari*) Begiratu botetan.
- 3 pirata:** (*inori ez*) Begiratu botetan.
- 1 pirata:** Poltsikoetan begiratzeko esan dut.
- 2, 3 piratak:** Bai jefe, bai jauna, bai, bai.
- 2 pirata:** Ez du ezer.
- 3 pirata:** Ez du ezer, ezer.
- Danborlaria:** Noski ezetz. Zer esan dizuet, Ba?
- 1 pirata:** Begiratu kapelan.
- 2 pirata:** Non?
- 3 pirata:** Non? non?
- 1 pirata:** KAPELAN!!!
- 2, 3 piratak:** Bai, bai, bai jauna, bai jefe.
- 2 pirata:** Ez du ezer.
- 3 pirata:** Ez du ezer, ezer.
- Danborlaria:** Noski ezetz, zer esan dizuet, ba?
- 1 pirata:** Begiratu botetan.
- 2 pirata:** Non, botetan?
- 3 pirata:** Non? Botetan esan du?
- 1 pirata:** BAI!! BAI!! Botetan begiratzeko esan dut.
- 2, 3 pirata:** Bai jefe, bai jefe, bai, bai.
- 2 pirata:** Ez du ezer.
- 3 pirata:** Ez du ezer, ezer.
- Danborlaria:** Noski ezetz. Zer esan dizuet, ba?
- 1 pirata:** Engainatu nauzu berriz.
- 2 pirata:** Hori, engainatu nauzu berriz.
- 3 pirata:** Hori, hori, engainatu nauzu berriz.
- Danborlaria:** Nik engainatu? Egia esan dizuet. Ez dut ezer; danborra bakarrik.

1 pirata: Orduan danborra eramango dugu.

2 pirata: Bai, danborra eramango dugu.

3 pirata: Bai, bai, danborra eramango dugu.

Kontalaria: Pirata hauek ez dira makalak gero! Irlan abandonatuko dute danborlaria, bakarrik eta betirako. Bai suerte txarra! Hau bai egoera larria gure danborlariarentzat! Zer egingo ote du? Nola irtengo ote da? Beharbada enkantamenduaz... Bai zergatik ez?

Danborlaria: Beno, bale. Harrapatu nauzue, danborra emango dizuet, baina utziko didazue azken nahia egiten?

1 pirata: Zein da zure azken nahia?

2 pirata: Hori, zein da zure azken nahia?

3 pirata: Hori, hori, zein da zure azken nahia?

Danborlaria: Utziko didazue azken aldiz nire danborra jotzen?

1 pirata: Hori da zure azken nahia?

2 pirata: Hori da zure azken azken nahia?

3 pirata: Hori da zure azken azken azken nahia?

Danborlaria: Bai, azken azken azkena.

1 pirata: Jo ezazu, baina arin.

2 pirata: Jo, jo ezazu arin.


3 pirata: Jo, jo ezazu arin arin.

Danborlaria: Ea, ea ba. Nik joko dut eta zuek... (*jotzen hasten da*) zuek dantza, dantza, dantza, egizue dantza.

Hirurek: Oh! Ah! Hau gehiegi da! Tumatxa! Gehiegi, hi! Demassa... fale. Oh! Ah! Ez! Nahiko! Gehiagorik ez! Geldi, geldi! mesedez! Faborez! Nahiko!

Danborlaria: Dantza, dantza egizue.

Gelditu hor! Hor ondo zaudete! Agur mamutzarrak, agur betiko agur.



Kontalaria: Brabo, brabo danborlaria! Piratak barre eta barre lur jota gelditu dira. Enkantamenduak funtzionatu du eta danborlariak irabazi egin die. Orain piratek dantzaldi luze hau egin ondoren, luzaro deskansatu beharko dute. Eta orain danborlaria bere danbor enkantatuarekin pozik baino pozago doa eta pixkanaka pixkanaka gauaren erreinuan sartzen da berriro. Hainbeste abentura ezagutu ondoren lotan gelditzen da olatuen soinuaz biharamunerarte.

(Soldadu bi agertzen dira)

1 soldadua: Ba! nora zoaz?

Danborlaria: Nire herrira.

2 soldadua: Begira, danbor bat darama.

1 soldadua: Orain ikusiko du.

2 soldadua: Bai. Gure lana amaitu behar dugu.

1 soldadua: Zurea da danborra?

Danborlaria: Bai, neurea da.

2 soldadua: Erregearen izenean emaguzu danborra.

1 soldadua: Erregearen mandatua bete behar duzu.

Danborlaria: Danborra eman? Erregearen izenean? Ez dut ulertzen.

- 1 soldadua:** Herrialde honetan ez da instrumentorik egongo erregearen izenean.
- 2 soldadua:** Gerra galdu dugulako erregea triste dago eta triste dagoenez mundu guztiak triste egon behar du eta ez du muskarik entzun nahi. Erregearen izenean...
- Danborlaria:** Bost axola niri erregearen mandatua. Danborra neurea da.
- 1 soldadua:** Ez da zurea. Herrialde honetan ez da instrumentorik izango. Erregearen izenean utzi danborra gurdi barruan.
- Danborlaria:** Eta zer daramazue gurdi barruan?
- 2 soldadua:** Herrialde honetako instrumentoak.
- 1 soldadua:** Erregearen soldaduak gara eta haren mandatua betetzen dugu.
- Danborlaria:** Ene bada. Arraioa! Tronpetak, binbolinak, soinuak, panderuak, albokak... Erregeari ez zaio muskarik gustatzen ala?
- 1 soldadua:** Ez, ez zaio gustatzen eta gainera ez duela kantu bat ere entzun nahi esan du.
- Danborlaria:** Baina, baina, orain neurre herriko jaiak dira. Zer egingo dute nire herrian? Nola alaituko dira? Ezin duzue hori egin.
- 2 soldadua:** Bai, erregearen izenean dena egin ahal dugu. Eta azken aldiz emai-guzu danborra.
- 1 soldadua:** Emaiguzu segundo bat galdu gabe.
- Danborlaria:** Utziko didazue azken aldiz jotzen? Agurrak beti izaten dira tristeak. Utziko didazue, ez da?
- 1 soldadua:** Bost segundo dituzu jotzeko.
- 2 soldadua:** Jo ezazu arin. Jo ezazu azkar.
- Danborlaria:** Ea ba! Fandangoa! Denon alengrantzirako eta erregearen gustorako!
- 1, 2 soldaduak:** Eh? Zer da hau? Dantzan ari gara! Gu dantzan! Ezina da, gu erregearen soldaduak gara. Begira oinak! Bakarrik doaz! Eta besoak eta burua eta hankak, eta gorputza, eh! eh! Geldi, nahiko! Amaitu, amaitu! Geldi, erregearen izenean! Ezin dut gehiago! Arin arin zoaz! Zu, danborlari zorua, utzi danbor hori! Madarikatua! Nahikoa da! Joan zaitetz hortik! Eraman ezazu danborra zurekin, baina amaitu.
- Danborlaria:** Egia da hori? Danborra eraman ahal dut?
- 1, 2 soldaduak:** Bai, bai. Bai, joan zaitetze biok, zu eta infernuko danbor hori! Joan zaitetze pikutara!
- Danborlaria:** Zuek joan zaitetze hemendik! Kanpora! Joan zaitetze, erregearengana, arin, korrika, erregeari esaiozue herrialde honetan beti musika, kantuak eta dantzak izango direla eta gure musikarekin beti pozik eta zoriontsuak biziko gara.



1, 2 soldaduak: Tira! Goazen hemendik, zoratuta dago eta! Deabrua! Arraioak!

Danborlaria: Bai, zuek deabru galantak! Joan, joan korrika erregearen izenean. Ja, ja, ja... Azkenean nire herrira helduko naiz.

Kontalaria: Gaur egun zoriontsua izango da danborlariaren herrian. Gau guztian dantzan eta kantatzen egongo dira. Denok pozik eta alai. Danborlaria azkenean herrira itzuli da eta zoriona ekarri du.

Mendez mende eta etxerik etxe danborlariaren jaia ospatu du herriak eten gabe.

Eta hau egia ez bada
sar nazatela kalabazan
eta irten nadila
Derioko plazan.

JIMMY POTKOLO

eta ZAPATARIA



JIMMY POTXOLO ETA ZAPATARIA

Lehen zatia

Jimmy: Ni, Jimmy Pottolo naiz. Haur bat naiz baina baita ere erraldoi bat eta oso sendoa naiz. Auzoko sendoena naiz. Denok menperatzen ditut! Ni naiz gaiztoena. Goiz honetan oraindik ez dut egin trastadarik. Baina... zer ikusten dut! Hor dago Marieli bere kioskoan egunkariak saltzen. Ja, ja, ja, zelako trastada pentsatu dudan ja, ja, ja, ...

Atsoa, atsoa, egunkaria nahi dut, atsoa.

Atsoa: Bai, zein egunkari nahi duzu?

Jimmy: Atsoa, atsoa, egunkaria nahi dut!

Atsoa: Baina... Nork hitz egiten du? Nor da?

Ene Jesus, nor izan da hau egin duen ganberroa? Nire egunkari guztiak behearen gainean, zein zoritxarra!!

Jimmy: Zer iruditu zaizue trastada hau? Ona, ezta? Ba oraindik haundiagoa egingo diot. Ikusten duzue? Jertse bat egiten ari da. Harilkoa ikusten duzue? Ba begira ondo zer egiten dudan.

Atsoa: Baina, zer gertatzen da? Ilunetan nago. Baina, zer gertatzen zaio jersey honi? Baina, zer da hau? Nork egin ote du trastada hau?

Jimmy: Egunkariak, aldizkariak, egunkari freskuek, aldizkari goxuek!!

Atsoa: Baina, begira nor den... Jimmy Pottolo! Nola da posible ez konturatzea orain arte?

Ni bai leloa!

Zer egiten duzu hor?

Irten hortik oraintxe bertan! Zure amari esango diot!!

Jimmy: Ja, ja, ja, zein gaiztoa naizen!
Horrela primeran pasatzen dut!!



Ixilik, begira, hortik dator zapatarri tentela. Izkutatuko naiz. Honi ederra egingo diot.

Zapataria: Egunon Marieli. Nola zabilta gaur?

Atsoa: Gaizki, oso gaizki. Jimmy Pottolo egun guztian trastadak egiten ari da eta gaur niri egin dizkit.

Zapataria: Bai, arrazoia daukazu. Oso handia da eta horregatik mundu gutiarekin sartzen da. Baina zer egingo dugu...
Aizu, ba, eguraldi ederra dago gaur ezta? ...

Arraio, lehenago esaten badut, arinago hasten da euria.
Orain euritakoa zabaldu behar dut.
Beno, ba, orain eguzkia irten da, euritakoa itxiko dut
... Eurria berriro? Bai eguraldi zoroa!
Baina... Nor dabil barre egiten?

Jimmy: Ni naiz! Zapatarri tentela! Jimmy Pottollo naiz.

Zapataria: Ene bada! Jimmy Pottolo da. Ez nauzu joko ezta? Ez nauzu joko ezta?
Uf! Azkenik, libratu naiz. Uf! Beno, ba.
Orain lanean hasiko gara (*Kanta*)
Bai, bai, zapatatxu honek gripea dauka eta gripea sendatzeko, ... laxo gorria jarrita, zapatatxua sendatuta.
(*Beste zapata bat hartzen du eta berriro kanta*)


Ez, ez, dauka griperik ez jauna, hagineko mina da honek daukana.
Eta... hagineko mina sendatzeko laxo urdina jarriko diot.
Laxo urdina jarrita, zapatatxua sendatua.
(Beste zapata bat. Kanta)

Zapatatxu honek zer dauka?
Ah! Bai, katarroa, ez, ez, katarroa.
Beno... eta zein laxo jarriko diot katarroa kentzeko?
Ba... laxo berdea jarriko diot.
Laxo berdea jarrita, zapatatxua sendatuta.
(Kanta. Erdian Jimmy hasten da).

Zapataria: Nork kantatzen du abots lodi horrekin "zapatatxue" "zapatatxue"?
Hemen ez dago inor. Ni bakarrik nago.
Beno, beno... (Kanta. Berriz Jimmy kantatzen hasten da)
Baina, nor arraio da abots lodi horrekin kantatzen duena?

Jimmy: Bai, bai, Jimmy Pottolo naiz. Begira nire zapata zaharrak, zeharo puska-
tuak!
Baina orain aldatuko ditut: zapata berriak hartuko dizkizut eta zaharrak
utziko. Ja, ja, ja, ...
(Zapatak probatzen ditu, baina denak txiki gelditzen zaizkio)
Ez didate balio, ez dira satzen nire oinetan... Kaka zaharra!!
Zapataria, tonto alena, zure zapatak oso tikiak eta oso txarrak dira.

Zapataria: Bai, bai.



- Jimmy:** Entzun gauza bat. Hemendik bost egunera zapata haundi eta fuerte batzuk nahi ditut niretzat. Konprenditzen duzu?
- Zapataria:** Bai, bai.
- Jimmy:** Bestela jo eta jo, jata eta jo, jo eta fuego, jo eta lurrera bota, eta lurrean burua kras.
- Ama:** Jimmy, Jimmy!!
- Jimmy:** Oraintxe noa, ama!
Zapata haundi eta fuerte, fuerte batzuk, bestela belarrik gabe utziko zaitut. Ez ahaztu gero.
- Ama:** Jimmy, Jimmy!!
- Jimmy:** Banoa! Banoa, ama!
- Ama:** Jimmy, zer esan dizut lehen? Meriendatzera etorteko. Nik pelukeria ordua eskatuta daukada... Jimmy!!
Goazen etxera oraintxe bertan. Benga, ... aguro nire aurretik!
- Zapataria:** Baina, zein astoa den Jimmy Pottolo! Zaku patata bat bezala bota nau lurrera. Hau zoritxarra! Nola egingo ditut zapata batzu Jimmy Pottolorentzat? Oinak oso handiak dauzka. Nik, zapata normalak, txikitxuak, koloretakoak... gorriak, beltzak, urdinak, horiak egiten ditut. Baina Jimmy Pottoloren oinentzat oso txikiak dira eta gainera ez daukat ugel nahikorik, ez, eta herri guztian ez dago material nahikorik. Oso pobrea naiz! Baina ez badiot egiten, entzun duzue, jo eta jo, jota eta jota... kras! egingo dit. Hau zoritxarra nirea!!
- Agureak:** Egunon zapataria.
- Zapataria:** Hori zuentzat izango da, niretzat berriz, oso txarra da. Ikusi duzue zer gertatu den?
- 1 agurea:** Bai, ikusi, bai, eta entzun ere, baina kolpeak hartzeko beldur izan gara eta ez gara sartu.
- Zapataria:** Badakizue, bost egun eman dizkit zapata haundi eta gogor batzu egiteko eta bestela jo eta jo... eta buruan... krask.
- 1 agurea:** Bai, arazo handia zeurea, zapataria.
- 2 agurea:** Eta gu zure lagunak gara. Horregatik arazo horrek kezkatzen gaitu. Bai, bai, oso kezkatuta gaude zugatik.
- 3 agurea:** Kezkatuta... norengatik?
- 2 agurea:** Zugatik! Ez, ez, beragatik.
- 3 agurea:** Nigatik? Eskerrik asko, baina neu nahikoa naiz neure burua zaintzeko.
- 1 agurea:** Beno, beno, arazoari irtenbidea aurkitu behar diogu.



- 2 agurea:** Zergatik ez dizkiozu harrizko zapatak egiten?
- 3 agurea:** Zerezko zapatak?
- 2 agurea:** Ez, ez, ni ez naiz Gaizteizkoa. Ni Berrizkoa naiz.
- 1 agurea:** Baina nola egingo dizkio harrizkoak? Zelako lelokeria! Harrizkoak oso astunak dira!
- 2 agurea:** Ba orduan, zergatik ez zoaz perratzailearengana. Berak burdinezkoak egin ahal dizkizu?
- 1 agurea:** Baina burdinezkoak? Nola esaten duzu? Zoratuta zaude?
- 3 agurea:** Zapatak... natazkoak?
- 2 agurea:** Zu ixilik, ez dakizu ezer eta!
- 3 agurea:** Zer?
- 2 agurea:** Ez dakizula EZERRRR!!
- 3 agurea:** Ez dakidala ezer, ez dakidala, ez. Noski, noski, zuk asko dakizu. Noski, berak asko daki eta.
- 1 agurea:** Bai, bai, hori bai ideia handia! Noski Askodaki, noski Askodaki. Askodaki leizezuloko sorgina. Berak asko daki, eta ziur Jimmy Pottolorentzat zapatak egiteko irtenbide bat edukiko duela.
- 2 agurea:** Bai, bai, egia da. Arrazoia daukazu.

3 agurea: Kantatzeko sasoia? Ba beno, kantatuko dugu.

Zapataria: Ba nik ez dut ezagutzen Askodaki.

1 agurea: Lasai, lasai, oso erreza da. Begira. Segi mendirako bidea eta Erdian leizezulo bat aurkituko duzu. Ba hantxe bertan bizi da Askodaki.

2 agurea: Ez galdu denborarik, joan korrika, arin, arin leizezulatorantz.


3 agurea: Eta kanta zer? Kantatuko dugu orain? Nik ezagutzen dut kanta bat: Boga bogaaa, mariñelaaa ...

1, 2 agureak: Mariñela, zu ixilik.


Bigarren zatia

Askodaki: Azkenean lortu dut. Zer lortu dudan?
Ba, ni Askodaki, Euskalerriko sorginik itsusiena politena bihurtzeko formula aurkitu dut. Uh, zein ikara! Baina ez da izango denbora luzez. Orain pozima hau hartuko dut eta hitz magikoak esango ditut: ixki milixki karrata plixti eta...

Zapataria: Askodaki, Askodaki... Non zaude?
Ze arraroa! Herriko gizonak hemen aurkitu ahal dudala esan didate, baina hemen ez dago inor, eta gainera bere behiak hemen daude.



- Askodaki:** Muuu, muuu, neu naiz, Askodaki.
- Zapataria:** Baina zer da hau? Hitz egiten duen behi bat!
- Askodaki:** Ez, ez naiz behi bat, Askodaki naiz. Euskalerriko sorginik politena izan nahi izan dut, baina erratu naiz eta begira orain. Mesedez, orain lagundu behar nauzu. Nire aurpegia eduki nahi dut, berriro eta horretarako hitz magikoak esan behar dituzu.
- Zapataria:** Bai, bai lagunduko zaitut. Zeintzu hitz esan behar ditut?
- Askodaki:** Astala, plasta Kastabatata.
- Zapataria:** Astala, plasta Kastabatata.
- Askodaki:** Uf, zelako ikara? Ikusten nuen neure burua bizitza guztian belarra jaten. Eskerrik asko, jauna. Baina... Nor zara zu?
- Zapataria:** Ni herriko zapataria naiz eta arazo handi bat daukadalako zuregana laguntza eske etorri naiz.
- Askodaki:** Eta zein da arazo handi hori?
- Zapataria:** Ba, Jimmy Pottolok, herriko haurrik erraldoi eta gaiztoenak zapata haundi eta gogor batzu ez badizkiot egiten, jo eta jo... eta bururan krask egingo didala esan dit. Eta bost egun eman dizkit.
- Askodaki:** Bai arazo larria zeurea! Eta irtenbidea aurkitzeko pentsatu behar dugu. Bai, bai asko pentsatu behar dugu.
- Zapataria:** Hori, hori, pentsatuko dugu.
- Askodaki:** Ea, ea, ba: Nik pentsatzen dut, berak pentsatzen du, guk pentsatzen dugu. Zuk pentsatzen duzu, zuek pentsatzen duzue. Haiek pentsatzen dute.
- Zapataria:** Bai, bai... Baina nola pentsatuko dugu?
- Askodaki:** Ba... ba, ba, buruari bueltak emanik. Ea, ... Bat, ... bi, ... eta hiru...
- Zapataria:** Ai! Zorabiatuta nago! Ze, Askodaki... Zerbait asmatu duzu?
- Askodaki:** Ez, ez zait ezer bururatu. Orain beste froga bat egingo dugu, orain salto-ka pentsatuko dugu. Horrela ideiak burura igoko zaizkigu.
- Zapataria:** Zer? Soluzioren bat?
- Askodaki:** Ezer ez.
Eureka! Eureka! Ideia bat.
- Zapataria:** Esan, esan ideia.
- Askodaki:** Zapatak gogorrak izateko elefanteari eskatu behar dizkiogu.



Zapataria: Eta... Zergatik elefanteari?

Askodaki: Ai lelo! Elefantea handia da ezta?

Zapataria: Bai.

Askodaki: Eta Jimmy Pottolo ere handia da.

Zapataria: Egia da.

Askodaki: Eta Jimmy Pottolo ere lodikotea da.

Zapataria: Egia da.

Askodaki: Eta elefantea ere lodikotea da.

apataria: Egia da!

Askodaki: Ba, joango gara Afrikara, elefantea bilatuko dugu, zapatak eskatu eta gero... akabo gure problemak.

Zapataria: Eta nola joango gara Afrikara?

Askodaki: Borobil magikoan (*Borobila agertzen da*)
Borobila borobaldu, Afrikara bialdu (*Askodaki desagertzen da*)

Zapataria: Ai, beldur naiz!

Askodaki: Ez zaitetz beldurtu, eta esan hitz magikoak.

Zapataria: Borobila borobaldu, Afrikara bialduuu!

Hirugarren zatia

Askodaki: Non dago zapataria?

Zapataria: Banoa, banoa.

Askodaki: Ene Jesus Maite! Ze lodia zauden!

Zapataria: Barkatu Askodaki, baina oso mareatuta nago. Non gaude ba?

Askodaki: Ba honek, Afrika izan behar du. Entzun, entzun! Tanborrak entzuten dira.

Zapataria: Askodaki, beldur naiz!

Askodaki: Ez, ez, hemengo jendea oso zintzoa da. Begira, begira, gizon beltz bat dator. Nor zara zu?

Beltza: Onga, onga, ongatxu onga.

Askodaki: Ah! Bai, bai, ba zera esaten du. Onga tribukoa dela, Errege ongarren semea, Onga hirian bizi dela eta Onga hitz egiten duela. Eta galdetzen digu nortzuk garen?

Zapataria: Ba esan zapataria eta Askodaki garela eta elefante aurkitzera etorri garela.

Askodaki.: Zapataria eta Askodaki ongaren onga. Elefante kiongi onga.

Beltza: Dantzonga bugi-onga dantzonga.

Askodaki: Ba, elefantea aurkitzeko Onga dantzatu behar dugula, denok dantzatu. (*Dantzatzen*)



Elefante: Auuuu...

Beltza: Onga elefante, Onga.

Zapataria: Nik elefantea ez dut ikusten.

Askodaki: Goazen, goazen bera aurkitzera: zu hortik joanjo zara eta ni hemendik.

Zapataria: Bale. Hara! Hemen dago elefantea!
Askodaki, elefantearen oinak bai handiak direla. Guttienez Jimmy Pottolorenak bezain handiak. Baina elefanteak ez dauka zapatarik!!

Askodaki: Ah! Bainutik etorriko da eta horregatik zapata barik dago.

Elefantea: Atxiiissss! Ejem, Ejem!

Zapataria: Elefante Jauna, ez daukazu hortik zapata para bat?

Elefantea: Atxiisss! Ejem!

Askodaki: Ez baduzu erregalatu nahi, mukizapi horregatik aldatzen dizugu.

Elefantea: Zapatak... Baina, ze demontre dira zapatak??

Askodaki: Ba gauza batzuk oinetan ipintzeko eta putzuetan sartzeko busti barik. Holantxe, begira...

Plisti plasta plisti plaus
mela mela ta bla blai (Bis)
zaparrada, txipristin
harri koxkor ta bustin
plisti plasta plisti plaus
mela mela ta bla blai.



Elefantea: Horregatik eztulka nabil!

Biak: Ah, orduan ez daukazu zapatarik?

Elefantea: Ez, atxisss, ez...

Zapataria: Eta orain... Zer egin ahal dugu?

Askodaki: Ai, koittadua. Ala! Zeuretzako! (*mukizapi bat ematen dio*)
Eta eztula kentzeko erremedio bat badakit. Itxaron apur bat.
Aizu, Zapatari! Nire lapikoa. (*Zapatariak ekartzen dio*)
Ur apur bat (*Elefantearen tronpatik*)

Lau Porru
Kipula bat
Sugearen begia
Igelaren mihia
Elefantearen ile bat
Gatz apur bat
Lehoiaren buztana eta bukatzeko...
Txakolin ttanta bat.
Eta orain, bueltak emanez prest egongo da.
Tra la la la la, lapikoa, lapikoa...
Orain, arnasa hartu behar duzu (*goilarakada bat*) eta osatuko zara.



- Elefantea:** Beno, beno... Ze txarra! Puff!
- Askodaki:** Edan behar duzu, edan behar duzu.
- Elefantea:** Eta berriro, ez dut hartuko katarrorik?
- Askodaki:** Noski ezetz!
- Elefantea:** Kua, kua kua, Askodaki, Askodaki, kua kua. Nire abotsa oso arraroa iruditzen zait.
- Zapataria:** Argi ba! Ahatearen abotsa da eta.
- Askodaki:** Oh! Zer egin dut! Erratu naiz. Beno, itxaron pixka bat eta pasatuko zaitzu
- Elefantea:** Kua, kua kua, orain ezin deitu nire lagunei, kua kua...
- Askodaki:** Ba pentsatu behar dut... Ah! Badakit. Ea elefantea, entzun!
Tira bira ka
kua kua kua
elefantea zara.
- Elefantea:** Oh! Eskerrik asko, eskerrik asko! Berriro nire abotsa gogorra da eta gainera, katarro barik gelditu naiz. Oi ze ondo! Eskerrik asko.
- Biak:** Agur. Ikusi arte. Guk joan behar dugu.
- Elefantea:** Baina... Kontuz! Gaua dator eta gauean arrisku handiak daude.
- Zapataria:** Entzun duzu, Askodaki?
- Askodaki:** Berdin da. Borobila hartuko dugu eta beste leku batera joango gara.
- Biak:** Borobila borobaldu, beste leku batera bialdu!

Laugarren zatia

- Zapataria:** Askodaki, non zaude? Zer gertatu da? Askodaki, askodakiii!
EEOOOOOO (*Oihartzuna*)
- Askodaki:** Zapatariaaaa, zapatariaaaa, hemen nagooooo.
- Zapataria:** Non gaude? Ez dago inor hemen, harea bakarrik ikusten dut.
Holan inork ez gaitu lagunduko eta inoiz ez ditut aurkituko zapata handi horiek.

Askodaki: Hau basamortua izango da, bero handia egiten du eta eguzkia gori gori dago.

Zapataria: *(Negarrez)* Eta orain, zer egingo dugu? Jimmy Pottolok belarriak kenduko dizkit.

Arabea: Oh, oh, oh, nire kamelloak ihes egin du eta berrogei egun eta berrogei gau ibiltzen eta ibiltzen. Oh, oh, oh, nire kamelloa joan zitzaidan, pisa egitera bajatu nintzanean. Oh, oh, egarri naiz. Hemendik inoiz ez dut topatuko urrik eta hil egingo naiz... Baina, zer ikusten dut? Espejismo bat ote? Malkoak!!

Biak: *(Negarrez)* Buaa, buaa, galdu egin gara, galdu egin gara!!

Arabea: Ura, ura behar dut, mesedez, glub, glub, glub. Malkoak, eskerrik asko jaunak, eskerrik asko. Hamar mila kilometro daramatzat oinez eta ur ttanta bat ere probatu gabe. Eskerrik asko. Baina zergatik ari zarete negarrez.

Askodaki: Urrunetik gatoz eta zapata handi handi batzu bilatzen ari gara.

Zapataria: Bai, edo bestela belarririk gabe geldituko naiz eta egun bat bakarrik gelditzen zaigu. Bua, Bua!!

Arabea: Ba, nik jirafa bat ezagutzen dut. Jirafa hori oso bizkorra da. Hark lagunduko dizue.

Askodaki: Eta non aurkituko dugu jirafa hori?



Arabea: Oso erreza da. Beno, hemendik zuzen-zuzen eta ezkerrera, eta han, palmera bat dago.

Biak:: Bai

Arabea: Ba ez, han ez. Hortik, zuzen zuzen, eskumara eta han, palmera bat dago.

Biak: Bai.

Arabea: Ba ez, han ere ez. Hortik eskumatara, gero eskerretara, gero eskumatarra, gero ezkerretara... eta han palmera bat dago.

Biak:: Ez.


Arabea: Ba bai. Han bizi da, hantxe bertan bizi da jirafa. Beno, agur. Nire kame-lloa aurkitu behar dut. Gregorio, etorri hona!!

Zapataria: Zuk ulertu duzu? Nik ez dut ulertu piperrik ere, ez dakit eskumara, gero ezkerrera, gero zuzen, ez dakit.

Askodaki: Bai, nik bai, nik gogoratzen dut, zuk jarraitu.

Zapataria: Askodaki, asko faltatzen da, ala? Ni oso nekatuta nago. Nik ezin dut gehiago.

Askodaki: Ez, hurbil gaude. Ikusi, ikusi! Hor dago! Hor bizi da! Goazen! Baina... zu jirafa al zara?



- Jirafa:** Bai
- Askodaki:** Baina zu ez al zinen handia?
- Jirafa:** Lehen bai, baina orain ez.
- Askodaki:** Eta nola egin zara ttiki? Zer hartu duzu ttiki izateko?
- Jirafa:** Ttikimizina hartu dut.
- Biak:** Bai medizina hau!
- Askodaki:** Orduan, medizina hau hartu eta ttiki bihurtzen da handia?
- Jirafa:** Holaxe da.
- Askodaki:** Orduan, medizina hau hartzen badu Jimmy Pottolok ttikia bihurtuko da.
- Zapataria:** Eta honekin, zer? Zer irabazten da?
- Askodaki:** Ba, Jimmy Pottolo ttikia bada, ez du beharko zapata handirik. Normalak balioko diote, eta gero akabo gure problemak!
- Zapataria:** Egia da! Jirafa, ttikimizina hori behar dugu. Utziko al diguzu botila?
- Jirafa:** Bai.
- Biak:** Eskerrik asko... Agur.
- Zapataria:** Orain badaukagu ttikimizina hau. Arin, arin, zapateriara joan behar dugu berriro. Baina, nola joango gara?
- Askodaki:** Ba noski! Borobila borobaldun sartuko gara eta zapateriara joango gara.
- Biak:** Borobila borobaldu, zapateriara bialdu!
(*Zapaterian*)
- Jimmy:** Zapataria, zapataria, nire zapatak. Non daude nire zapatak, nire oinetako handiak, nire oinetako fuerteak?
- Zapataria:** Hemen daude.
- Askodaki:** Baina probatu baino lehen edari hau hartu behar duzu.
- Jimmy:** Zergatik? Hau oso arraroa iruditzen zait.
- Askodaki:** Ez kezkatu, gero esango dizugu.



Jimmy: Baina, goxoa da?

Zapataria: Bai, bai, noski. Oso goxoa da!

Jimmy: Beno, pixka bat hartuko dut... Ah, bai goxoa!! (PLOFF)
Baina, orain zu bezain ttikia naiz!!

Zapataria: Bai jauna! Orain ni bezain ttikia zara.

Jimmy: Tranpa egin duzu, horrela ez du balio.

Askodaki: Ez da tranparik. Hola zapata handiak ez dituzu eraman behar.

Jimmy: Ba, ze zapata erabiliko ditut?

Askodaki: Ba, zapata gorriak, zuriak, urdinak, ta kolore guztietakoak.

Jimmy: Baina tranpa egin didazue, nik handia izan nahi nuen eta ez ttikia.

Zapataria: Tranpa, tranpa... Nik emango dizut!!!

Jimmy: Beno, joan egin behar dut. Agur presa daukat.



Zapataria: Asko ibili gara. Jende asko ezagutu dugu eta azkenean, Jimmy Pottoloren arazoa konpondu dugu. Orain, nire lanean jarraituko dut: jo eta jo, jota eta jo...

Askodaki: Hemendik aurrera akabo gure problemak!!

HEZKUNTZA ETA KULTURA SAILA

EUSKARA ZERBITZUA

Argitalpenak

GLOTODIDAKTIKA-LANAK:

1. Hizkuntzen Irakaskuntza: Topikoak eta Metodologiak
2. Hizkuntzen Irakaskuntza: Gramatika Ariketak
3. Hizkuntzen Irakaskuntza: Mailaketa Gramatikala
4. Hizkuntzen Irakaskuntza: Neurpideak (prestatzen)
5. Hizkuntzen Irakaskuntza: Zenbait Artikulu (prestatzen)
6. Haurrak Euskaldutzen Giñolaren bidez. Kukubiltxo Taldea
7. Euskararen Gaitasun Agiria: Programa
8. Euskaltzaindik Batasunerako eskaini dituen erabakiak.
9. Haurrak euskalduntzen Giñolaren bidez II. Itzaropena M. de Lezea
10. Ipuin zahar eta berriak. Lurdes Iriondo
11. Jolasean. Imanol Urbietak
12. Amonaren Ipuinak. Enkarni Genua
13. Ipuin gehiago. Lertxundi – Lucas – Keinu – Maskarada


HIZKUNTZ PRESTAKUNTZA:

1. Bizkaieraren idatzizko arauak

OHARRAK

A series of horizontal lines for writing, consisting of 20 evenly spaced lines that fill the page below the title.

OHARRAK





lpuin gehiago

EK15030389

EUSKO JAURLARITZAREN ARGITALPEN-ZERBITZU NAGUSIA
SERVICIO CENTRAL DE PUBLICACIONES DEL GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE LA PRESIDENCIA